

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3631

116/2019 DEKRETUA, uztailaren 23koa, zeinaren bidez kargutik kendu, izendatu eta berritzen baitira Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokalak.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak interes orokorreko portuak arautzen ditu atariko tituluaren II. kapituluaren arabera; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Pasaia eta Bilbokoa sartzeko portu horien artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta lurraldean dauden interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege-dekretu horiek behar diren neurriak ezartzen dituzten portu horiek portuko agintaritzen (hots, portu horien organo zuzendari publikoen) antolaketa-egituraren partaidetza handiagoa izan dezaten.

Zehazki, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 bokal, eta gehienez 13. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da bokal-kopurua. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, aurreko apartatuaren c) letran aipatu diren bokalak izendatzerakoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Itsas kapitaina eta beste hiru bokal izango dira Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak. Hiru bokal horietako bat estatuaren abokatu bat izango da, eta beste bat Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Administrazio Kontseiluko lehendakariak gain, lau bokalek ordezkatzeko dute autonomia-erkidegoa.

c) Kanariar Uharteetan, kabilgo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gaineratzeko kideen % 33ko ordezkari izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik honako hauei egokituko zaie ordezkari: portu-agintaritzak administratutako portuari/iei izena ematen dion/en udalari/iei; eta, ondoren, gainerakoei: zerbitzuguneak udal-mugartean zer azalera hartzen duen, hainbateko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkariak izango dira: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberenak, enpresa- eta sindikatu-erakundeak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoenak.

Kideen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, Estatuko Portuak erakunde publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenak –lehen apartatuaren c) letran aipatuta– lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berri ahal izango da, hurrengo apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkatzeko dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta».

Horiek horrela, eta Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 23an egin duen bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– M.^a Soledad Garmendia Beloqui andrea Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal izatetik kentzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa jardun baitu.

2. artikulua.– Rafaela Romero Pozo andrea Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal izendatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa jarduteko.

3. artikulua.– Izaskun Gómez Cermeño bokalaren izendapena berritzea, Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko Pasaiko Udalaren ordezkari gisa jardun baitu.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu Pasaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari bokalak kargutik kendu, izendatu eta berri izana jakinarazten zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.